

Mugimendu ultraeskuindarren berpiztea



Leire Calero
Nerea García
Iñigo Ortiz de Salazar
Ainara Valverde

Aurkibidea

Sarrera	3
Zeintzuk dira mugimendu horiek?	4
Faxismoa	4
Mugimendu ultraeskuindarrak	5
Gaur eguneko egoera	6
Ipar Amerika	7
Tea Party	7
Europa	9
Frantzia	10
Jean-MarieLePen	10
Espainia	11
Botere betearazlean	12
Botere juridikoan	13
Garzon kasua	14
Galdetegia eta grafikoak	15
Ondorioak	17
Konklusio orokorra	17
Bibliografia	18

Sarrera

DBH 4. mailako ikasleak gara eta mugimendu ultraeskuindarrei buruzko ikerketa-lan bat egingo dugu, alde zurretik genituen hainbat zalantza argitzeko.

Gaur egun, entzuna egiten zaigu komunikabideetan ageri direlako edo, agian, ingurukoei entzuna diegulako hainbat gai politiko: "Tea Party" edota AEBn eta Europan indarra hartzen ari diren alderdi kontserbadoreak. Telebistan ultraeskuindarrak direla esaten dute, baina hori zer den ba al dakigu? Badakigu zer esan nahi duen ultraeskuinak? Zer gizarte-mota aldarrikatzen duten alderdi horiek?

Gure lanerako, informazio-iturri ezberdinak izateko, betiko baliabidetatik aparte, zuzeneko iritziak jaso nahi genituen. Hori dela eta, ikastolatik kanpo inkesta bat egiten aritu gara, inguruko adin eta sexu desberdineko jendeari eta emaitzak ikusita, argi ondorioztatu dugu jendearen gehiengoak ez dakiela zehatz-mehatz zer diren mugimendu horiek. Batzuek kritikik aterako gaituztela diote. Beste batzuek, ordea, "faxistak" direla esaten dute. Baina orduan, zer dira benetan?

Interneten ibili gara, geure jakin-mina argitu nahian, eta zenbait web-orrialdetan honelakoak topatu ditugu: ijitoen kanporaketak Frantzia, Suedian ultraeskuina garaile atera dela, Holandan indar handia hartu dituzte azken hauteskundeetan ... Baina bat bereziki arreta deitu digu: OctavioRodríguez Araujo idazle mexikarrak idatzi duen artikulua bat. Bertan era subjektibo baten bidez, ultraeskuina zer den azaltzen du:



Octavio Rodríguez Araujo
(<http://pueblapeje.blogia.com/2008/121102-articulo-de-octavio-rodriguez-araujo.php>)

"Gobernu bat alderdi eskuinekoa dela esaten dugu, bere politika publikoen bidez ez duenean berdintasun handiagoa sustatzen eta ezberdintasun sozialak sendotzen dituenean. Eta aurrekoaz gainera, gobernu bera praktika arrazistak, xenofoboak eta erlijio edo iritzi kulturalen kontra doanean gobernu ultraeskuindar bati buruz hitz egiten ari gara"

OctavioRodríguez Araujo, *Derechas y Ultraderechasenelmundo*

Baina, hori irakurtzean, galdera bat argitu ordez, askoz gehiago egin dizkiegu gure buruei: testu horrek dioenaren arabera al dira botere handia hartzen ari diren alderdiak? Edo ezberdinak al dira? Zergatik daude gero eta indar handiagoa hartzen? Ba al du krisiak eraginik horretan? Eta Elizak? Faxismoarekin zerikusirik ba al daukate? Zer da faxismoa? Espainian horrelakorik ba al daude? Zeintzuk? Hori al da Garzon epaileak ikertzen zebilenak?

Guztietarako erantzunik ez geneukanez, ikerketa-lan honetan aurreko galderak argitzen saiatuko gara dena gardenago ikusteko asmoz.

Zeintzuk dira mugimendu horiek?

Faxismoa

Faxismoa ideologia eta mugimendu politiko bat da, gerra garaian (1918-1939) Europan sortu zena. Italiarazko "fascio"tik dator eta, zentzu figuratuan, liga esan nahi du. Bere helburua ideologia totalitarioa eta ekonomia agintaria ezartzea da. Ideologia tradizionalen aurka egiten du, liberalismoa eta marxismoaren aurka. Faxismoa berritasunean oinarritu zen, ideologia tradizionalak (liberalismoa eta marxismoa) gainditzea baitzuen helburu.

Ondokoak dira faxismoaren ezaugarri nagusiak:

- Antikomunismoa
- Antiliberalismoa
- Demokraziaren aurkako izaera
- Arrazoiaren gainetik sentimenduak azpimarratzea
- Aniztasuna edo desberdintasunaren aurkako jarrera

Hasiera izan zuen Europa eszenatoki gisa hartu zuen bigarren Mundu Gerraren ondoren, Benito Mussolini agintean zegoelarik (1922). Ondoren, Alemanian, Adolf Hitlerrek (1933) ideia horiek aplikatuz, mundu osoa eraman zuen denok ezagutzen ditugun ondorio sinestezinetara. Ildo horren beste eredu bat Espainian aurki dezakegu Francisco Francoren diktadurarekin(1936-1976).



Mussolinirenmitin bat (<http://quierosabermas.org/?tag=mussolini>)

FAXISMO ITALIARRA

Faxismo italiarra Benito Mussoliniri lotuta dago. Lehen Mundu Gerra amaitu aurretik, Italiako Alderdi Sozialistako kidea zen. Geroago, aldaketa nabarmena jaso zuen bere pentsamoldeak.

Politika arrazistak, xenofoboak eta kultura eta erlijio ezberdinen aurkako politika, instituzio ez demokratikoetan ezartzen direnean, mugimendu ultraeskuindarrak direla deritzogu. Horixe bera zen Mussolinik aurrera atera nahi zuen gobernu-era.

Faxismo italiarrak nazismoaren eraginez bereganatu zuen arrazismoa.

Mugimendu ultraeskuindarrak

Frantziako iraultzaren ondoren sortu ziren mugimendu eta partidu politiko ultranazionalistak, xenofoboak eta autoritarioak dira, liberalismoaren aurka egiten zutenak.

Politika arrazistak, xenofoboak eta kultura eta erlijio ezberdinen aurkako politika, instituzio ez demokratikoetan ezartzen direnean, mugimendu ultraeskuindarrak direla deritzo.

Mugimendu hori, monarkikoak eta errepublikazaleak, Frantziako Iraultzaren ondorioz sortu zen parlamentu frantsesean, esertzen ziren

BihotzGaztea ikastola

Santurtzi (Bizkaia)

lekuetan du jatorria. Monarkikoak eskuinaldean esertzen ziren eta errepublikazaleek, aldiz, ezker aldean.

Mugimendu horretan, bi alderdi ezberdintzen dira. Alde batetik, eskuinalde moderatua, zentro-eskuina deritzona; bestaldefetik, muturreko eskuinaldea. Horri, ordea, muturreko eskuina edo ultraeskuina deritza.

Mexikoko Rodríguez Araujo irakasleren arabera: *"el término derecha... está también un concepto que ha variado según las tradiciones y el tipo de sociedad y de poder que se han defendido a lo largo de la historia. Muchas de las posiciones políticas que ahora consideramos de derecha fueron de izquierda en otro momento"*

Beraz, mugimendu ultraeskuindar guztien helburuak ez dira berdinak, baina ezaugarri berdin batzuk dituzte:

- Nazionalismoa
- Antikapitalismoa: kapitalismo liberalaren aurka.
- Tradizionalismoa
- Kontserbadurismoa
- Antikomunismo
- Nazionalismoa

Gaur egun, mugimendu horien berpiztea gertatzen ari da, krisi ekonomikoa eta herritarren ziurgabetasuna dela eta. Europan mugimendu ultraeskuindar bat agertu egin da. Globalizazioaren eta immigrazioaren aurka egiten duena, modu nazionalistaz eta, batzuetan, arrazista batez.

Oso garrantzitsuak dira Holandan, Italian, Frantzia eta beste hiri batzuetan. Espainian, ordea, gutxieneko taldeak dira.

Gaur eguneko egoera

Gaur egun, ondo dakigu politika eguneroko bizitzan murgilduta dagoela. Baina ez soilik hemen. Jakin badakigu politikari ultraeskuindarrak lehenaldikoak direna edo horien ondorengo fidelak baina, zergatik jarraitzen dute boterea izaten?

Ultraeskuina bada talde edo partidu politiko bat, non parte hartzen duen jendea ultranazionalistak, xenofobokoak eta autoritarioak diren.

Ipar Amerika

Tea Party



Tearenmatxinada (<http://lilibertadylaley.wordpress.com/2010/10/17/tea-party/>)

Egun, badaude mugimendu eskuindarrak mundu osotik; adibidez, Ipar Amerikan, *Tea Party* delakoa daukagu, oso esanguratsua eta jarraitzaile asko dituenak. Gobernuakplazaratutako erreforma ekonomiko eta sozialen aurka azaldu da behin baino gehiagotan; hala nola, zerga-igoeraren aurka eta Estatu Batuetako jatorrizko idealak (indibidualismoa eta banakoaren autonomia) aldarrikatzen ditu edozein baloreren gainerik.

Sarah Palin da mugimenduaren buruzagietako bat. 2010an mugimenduak zabalkuntza handia izan zuen: antolatutako jarraitzaileen elkarretaratzeak eta azaroko hauteskundeetan izan behar zituen emaitzak mundu osoko ikusmira erakarri zuten, Barack Obama eta alderdi demokrataren aurkari sendo moduan.

Mugimendu horrek oso argi ditu beraien helburuak.

Nondik dator?

“Tea Party” mugimendu kolonialista bat da, XVIII. mendeko bigarren erdialdean sorturikoa; hain zuzen ere, *Motín del té de Boston* (“*Boston Tea Party*” ingelesez) deituriko matxinadan du jatorria. Istilu hartan, matxinadako partaideak tearen zergen alde egiten zuten nahiz eta Britainiako parlamentuan botorik ez izan. Matxinada hasi zen kolono batzuk tea zekarren itsasuntzi batera igo zirenean eta kargamentu guztia kareletik bota zutenean.

Historialari askok uste du matxinada hori izan zela kolono estatu batuarren metropoliaren kontrako lehenengo ekintza. Hots, bertan aurki daitekeela Ingalaterratik aldentzeko mugimendu independentistaren sorrera.

Egoera gaur egun

Estatu Batuetako partidu errepublikanoko talde batek, ultrakonserbadorez osatuta gehienbat, izen hori hartu zuen Obamaren onarpenarekin bat egiten zuen politika fiskalaren kontra daudela aldarrikatzeko. Eta haien helburua da, kolonoek ingelesekin egin zuten bezala, gaur egungo *Etxe Zuriko* agintaria botatzea.

Mugimendu horren barruak badira Estatu Batuetako ultraeskuineko jendearen izen esanguratsuak nortzuk jada manifestatu dute talde horren alde daudela.

2002an, ultraeskuinekoek beste estrategia berri bat planteatu zuten. Beraien azkeneko estrategia deigarri batzuk honako hauek izan dira: Darwinen eboluzioaren teoriaren aurkako kreazionismoa sustatzea (gizakia Jainkoak sortua dela) edo zientzia klaseetan diseinu azkarraren ikuspegia emateko debekua eskatu dute hainbat alditan. Horrek erlijioa irakastea suposatzen zuen eta hori AEBko konstituzioaren kontra doanez, estrategiaz aldatu egin zuten. Orain, eboluzioaren teoria krisian dagoela erakusten saiatzen ari dira, zientifikoak soilik haren alde daudela esanez. Horretarako, kritika zorrotzez, eta sarri modu zakarrez, demostratuta ez dagoela errepikatzen dute behin eta berriz.

Estrategia hau erabili ohi da “askatasun akademikoa”z mozorrotuta dagoen planteamendu batez. 2002tik gaur egunera arte, 30 proposamen baino gehiago egon dira, prozesu ebolutiboa kolokan jartzeko AEBren hainbat estatuetan: 9 Alabaman, 3 Oklahoman, 1

Maryland, 3 Mexikon, 4 Missouri, 2 Floridan, 2 Louisianan, 2 Michiganan, 3 Hegoaldeko Karolinan, 1 Iowan, 1 Texasen eta beste bat Kentuckyn. Soilik horietako bat izan da onartua, Louisianan, onartua eta indartua.

Europa

Gaur egun argi dago Europan ere badagoela jende ultraeskuindarra, mundu osoan zehar bezala. Eta horregatik, badauka bere txokoa ere gure ikerketa lan honetan.

Hauek izan dira ultraeskuindarren, herritarrak ere deiturikoen, azken ekitaldia esanguratsuak Europan zehar:



- LePen politikariaren *Front National (FN)* alderdi politikoaren ezusteko Le Pen presentzia Frantziako hauteskundeetan bueltan botoen %17 lortuz. (<http://www.lacasadelarcerojo.es/2010/09/22/%C2%BFpor-que-vuelve-la-extrema-derecha/>)
- “*Lista Pim Foruyn*”en gorakada izugarria Holandan (Foruyn politikaria hil zuten hauteskundeetan aurreko egunetan; egundoko jaiak ospatu ziren eta horrek nazionalistei ez zitzaien batere gustatu). Alderdi horrek 150tik 26 postu lortu zituen; horrela, parlamentuan sartzeko indar handia eskuratu zuen.

Gertakizun horiek ez dira aparteko kasu bat. Mendebaldeko Europan partidu ultraeskuindarrek azken urte hauetan gora egiten ari direla nabarmendu ahal dugu:

- **Italian**, non gaur egun Berlusconiaren gobernuak ultraeskuineko formazio biren laguntza jasaten du: *Umberto Bossi*ren *La liga norte* eta *Alianza Nacional* (lehen MSI deiturikoa), Gianfranco Fini-er politikarioarena.
- **Belgikan**, non *Vlaams Blok* botoen %33a lortu zituen Amberesen 2000. urteko urrian eta %10 inguru azkeneko legebiltzarrean (Flandesen, %15a baino gehiago).

- **Danimarkan**, non immigrazioaren kontrako lege indartuak aurkeztuak izan diren. Herriko Partidua, xenofoboa da, botoa emandako biztanleriaren %12a ordezkatzeko eta partidu liberalak eta kontserbadoreak babesten ditu.
- **Suitzan**, immigrazioaren kontrako kanpainak egin ostean, Uniod Demokratikoa botoen %22,5 lortu zituen 1999ko urrian legebiltzarrean.
- **Norvegian**, Aurrerakuntzako Partidua deituriko bat ere indar handia dauka.

Baina, zer esanahi dute fenomeno hauek guztiek? Gauza bat argi dago. Jarrerak, berriz, zorrotzen ari dira, Amerikan, Europan, eta mundu osoan.

Frantzia

Europar Batasunean ultraeskuindarrak eta neofaxistak indartsu dabilta. Europako azken hauteskundeetan handitzen ikusi dira eskuin muturreko populistak, faxistak eta neonaziak, nor bere berezitasunarekin. Frantziari buruz hitz egin behar dugunean, duela ez asko gertatu dena etortzen zaigu burura. Izan ere, Jean – MarieLePen politikari ultraeskuindarra batzar bat antolatu zuen bere postua utziko zuela jakinarazteko. Politikari famatu horrek, Front National-eko burua izan da hasieratik, eta bost aldiz aurkeztu da frantziar hauteskundeetan, garaipena lortu gabe.

Bere proposamen politikoak eztabaida handiak sortu zituzten Frantzian. Besteak beste, inmigrazioa gelditzea, Frantzia Europar Batasunatik ateratzea edo heriotza zigorra berrezartzea izan ziren bere asmoak. 2002ko hauteskundeetan bigarren itzulian sartu zen, Jacques Chiracen aurka. Azkenik botoen %17,94 lortu zuen. Baina lehen esan dudan bezala, orain entzuna egin dena biltzar hori izan da. Bertan, gauza asko kritikatzeko aritu zen. Lehenengoz, Frantziako eskolen heziketa, eta letretako arloen falta. Denbora osoan zehar aritu zen Frantzia eta duela 40 urteko Frantzia konparatzen. Bere ustez, duela 40 urteko Frantzian, guztia justizia zen, orain berriz delinkuenteak biktimaren pare jartzen dira.

Baina, dudarik gabe, batzarraren puntu nagusia, bere lekua nori utziko zion esan zuenean izan zen. Bere alaba MarineLePen bihurtu da orain Frantziako ultraeskuinaren ordezkaria.

Emakume hori 2002. urtean sartu da politikaren munduan, eta nahiz eta bere aita baino modernoagoa izan (izan ere, 2 aldiz dibortziatu egin da), bere ideal berberak ditu. Gainera, gero eta indar handiagoa hartzen ari da partidua berarekin eta hurrengo hauteskundeetan irabazi ahal izango duela uste da.

Espainia

Espainiaren kasuan mugimendu ultraeskuindarren eta faxisten eragina begi-bistakoa da. Frankismoren garaitik gaur egunera euren boterea asko murriztu bada ere, oraindik aurkitu edo entzun ahal ditugu, telebista apur bat ikusiz edota interneten ikerketa txiki bat eginez. Gainera, gaur egungo nazioarteko krisia dela eta, euren zeresana handitu egin da bizitza politikoan. Hala ere, politikako zein eremutan daukaten eragina jakitea ez da hain erraza.

Dakigunez, gaur egun Espainiako estatuan, eta demokrazia daukaten herri gehienetan, boterea hirutan dago, inolako diktadura edo tiraniatik babesteko:

- Botere legegilea. Espainiako Gorteak: Diputatuen Kongresua eta Senatuaz osatuta.
- Botere betearazlea. Espainiako Gobernuak eta Presidenteak osatuta.
- Botere judiziala. Espainiako epaitegi guztiez osatuta dago, baina herrialdeko epaitegi nagusia Auzitegi Gorena da.

Iturri ugariatik ikerketa sakona egin ondoren, mugimendu ultraeskuindarren eragina aurreko zein botereetan nagusiki gaindu egiten diren ondorioztatu egin dugu: botere betearazlea eta botere judizialean.

Botere betearazlean:

Espainiako Gobernua, eta ondorioz presidentea, ezkerrekoak izanda ere, botere honetan mugimendu ultraeskuindarren eta faxisten garrantzia handia da. Mugimendu hauen gehiengoa Francisco Francoren diktaduratik sortuak dira eta berarekin boterean egondako batzuk sortu eta jarraitu egin zituzten. Hauek dira aurkitutako batzuk, nahiz eta zerrenda oso luzea izan:



Falangeren manifestazioa (<http://www.kaosenlared.net/noticia/falange-vilanova-i-geltru-manifestacio-antifeixista>)

- **Espainiar Falangea eta JONSekoa:** Alderdi politiko faxista eta ultrakontserbadorea da. Haren jatorria Francok sortutako alderdi bakarretatik dator: “Falange Espainiarra Tradizionalista eta JONSekoa”. Euren ideologiaren arabera, abortuaren, ezkontza homosexualaren eta hainbat aurrerakuntzen aurka doaz, eta Francorekin zegoen diktadura berrezartzea dute helburu.
- **Esku garbiak** (gaztelera ManosLimpias): Italiar jatorria duen elkarte bat da, baina Espainian baita ere zeresan handia hartu egin du azken urteetan. Ez dauka izaera instituzionalik, baina ezkerreko eta zentro-eskuin alderdi politiko batzuen kontra hainbat demanda judizial aurkezteagatik gailendu egin da. Euren ideologiaren arabera, Falangea bezala, abortuaren, ezkontza homosexualaren eta Gobernuak aurrera eraman ditu hainbat aurrerakuntza-legeen aurka egiten du.
- **Alderdi Popularran** (gaztelaniaz Partido Popular edo PP deitua), baita ere, Francoren garaiko buruzagi eta ministro batzuk sartuak daude, baina gehiengoa ez du boterean irauten, hil egin direlako edo erretiratu egin direlako. Izan ere, alderdi politiko hori 1976ko urriaren 6an sortu egin zen, baina beste izen batekin: Alianza Popular. Franko hiltzean eta Espainian demokrazia berrezartzean, talde kontserbadore txiki batzuk elkartu egin ziren eta aurretiaz aipatutako alderdi hori sortu zuten. Alderdi kontserbadore horien artean, Francorekin boterean egon ziren hainbat agintari eta buruzagi sartuak ziren, denbora horretara arte,

diktaduran, edukitako boterea eta estatusari uko ez egiteko asmoarekin. Agintari horien adibideak ugariak dira, baina guk oraindik bizirik irauten duten batzuetaz informazioa bilatu dugu:

· **Manuel Fraga Iribarne:** Franco diktaduraren garaian Informazio eta Turismo ministroa izan zen 1962tik 1969ra. Geroago, 1975tik 1976ra Gobernuako presidenteordea eta gobernazioaren ministroa izan zen.

Diktadorearen ideiekin bat dator eta diktadura garaiko hilketa batzuk bultzatu zituen. Hala nola, Julián Grimau politikari komunistarena (oraindik bere familiari barkamena eskatu ez diola). Hurrengo urteetan, demokraziako Gobernuaren



Fraga
(<http://javierastasio.blogspot.es/tags/fraga/>)

presidenteordea iristera heldu egin zen. Gaur egun, Galiziako Gorteetan senataria da eta PPko presidente fundatzaile titulua dauka (lehen ohore-presidentea izan zen). Egin zuen gehiegikeriengatik oraindik ez da epaitu, eta gai honetan gauzak doazen moduan seguruena ez da epaituko.

· **Licinio de la Fuente de la Fuente:** 1969tik 1975ra Lan ministroa izan zen Luis Carrero Blancoren lehendakaritzan, garai horretan zegoen partidu bakarrean: lehen aipatutako Espainiako Falangea eta JONSekoan. Gaur egun politikatik erretiratua dago eta enpresa batzuen administrazio kontseiluan lan egiten du.

· **Yunque:** Gaur egun gero eta entzunagoa egiten ari den mugimendu politiko-erlijioso da. Mexikon du jatorria eta bere helburuak *“erlijio katolikoa defendatzea eta Satanasen alde daudenen kontra egitea, indarkeriaren edo erailketaren bidez”* haren kideak botere politikoan sartuz. Beste era batean esanda, sekta ultraerlijiosa da. Espainian, kazetari

batzuen esanetan indarra hartzen ari da, baina egia den ala ez dakigu.

Botere juridikoan:

Espainian, demokrazia ezarri zenean, politiko eta funtzionario guztiei demokratikotasunaren ala ez frogatzeko azterketa bat egin zitzaion, batzuei izan ezik: epaileak. Ondorioz, demokrazia ezarri eta gero Francoren epaileek boterean iraun zuten eta gaur egun horietako batzuek irauten dute. Denbora gehien daramatenak direnez, botere eta garrantzia gehien dutenak dira eta horietako asko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia osatu egiten dute, botere besteei epaileen eta magistratuen independentzia ziurtatzea helburu duen kontseilua. Hori dela eta, kontseilu horretan hartzen diren erabaki askoren zilegitasuna dudan dago eta hainbat zuzengabekeria sortu egin dira. Guk Baltasar Garzón epaileari buruz gertatutakoaz hitz egingo dugu, agian, ezagunena.


Garzón epailea, pasa den urtean, frankismoko hilketak ikertzen zebilela, hainbat talde ultraeskuindarrak ikertzen aritu zen. Horietako batzuk Esku gabiak (ManosLimpias) eta Espainiar Falangea eta JONSekoa ziren. Baina, talde hauek epailea haiek ikertzeko arrazoirik ez zuela leporatu zioten eta haren kontra hainbat salaketa planteatu zioten, baina bera ikertzen jarraitu zuen. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia talde ultraeskuindarrei arrazoia eman zioten eta Baltasar Garzón 2010eko maiatzaren 14an magistratu kargutik eten zioten eta Hagan dagoen Nazioarteko Zigor Gortera aldatu zuten.

Ondorioz, ez dakigu gehiago ez ikertzeko aitzakia bat izango zen edo ez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian zeuden hainbat pertsona frankismoko hilketa horietan sartuak zirelako. Baina, aitzakia zen edo ez alde batera utziz, epaileak egindakoa ez ote zen magistratu kargutik eten egiteko arrazoi nahikorik galdetzen diote bere buruari ikerlari askoko.

Galdetegia eta ateratako ondorioak

Gaur egun, aurretiaz azaldutako mugimendu horiei buruz jendeak zuen iritzia jakin nahi genuen. Horretarako, kalera atera eta adin desberdineko berrogeita hamabost pertsonen gai honi buruz hamar galdera egin dizkiegu: hamabost gazteei, hamabost helduei eta hamabost adinakoei. Emandako erantzunekin hiru grafiko egin ditugu, hiru azpimultzo desberdinei buruz.


Gaur egun, ze alde politiko dagoela boterean uste duzu?




GAUR EGUN ZE ALDE POLITIKO DAGOELA BOTEREAN USTE DUZU?

Argi ikusten dugu helduen eta adinekoen iritziak oso antzekoak direla (gehiengoak eskuina dagoela boterean uste du). Hori helduek eta adinekoek munduko egoera hobeto ezagutzen dutelako da. Gazteak berriz, ezkerria dela nagusi erantzun dute. Gure ustez, Espainiako kasuaren berri soilik dutelako da hori, gazteen gehiengoari ez zaiolako politika gehiegi interesatzen.

Ba al dakizue zeintzuk diren mugimendu ultraeskuindarrak?



Grafiko honetan argi ikusten dugu gazteek eta adinekoek iritzi antzekoa dutela: erdiak baietz dio eta beste erdiak ezetz. Horrek adierazten digu oso argi ez dagoela zer diren, seguruenik Espainian, halako mugimenduak oso ugariak ez direlako da. Zaharrek ere ez dakite asko mugimendu hauei buruz. Izan ere, soilik %20k daki zeintzuk diren.



Ikusten dugun bezala, gazteek ez dute argi nor dagoen boterean Espainian.

Izan ere, orokorrean, gazteek ez dute interes asko politikagaitan. Helduen artean, berriz, guztiek dute argi beraien iritzia: gehiengoak, oraindik faxistak boterean daudela uste dute. Gure ustez, hori beraien betidanik bizi dutelako da, eta nahiz eta gauzak pixka bat aldatu diren, beraien argi daukate oraindik dagoela jende faxista boterean.

Adinekoei buruz hitz egin behar dugunean, esan behar da, soilik %20k uste duela boterean ez daudela. Besteak, erdia baietz eta beste erdia ez dakiela dio. Gaur egungo egoeran, adinekoak ez daudelako oso informatuak da. Hau da, beraien beraien garaian bizi izan dute, baina orain ez dute argi nor dagoen boterean eta nor ez.

Ondorioak

Emandako erantzunekin ondorio nagusi hauek atera ditugu:

Batetik, munduan, Europan eta Espainian eskuina indar handiagoa duela pentsatzen du jendeak, diru gehiago duelako. Horren ondorioz, Espainian adibidez, jendeak gerra zibileko agintariek boterean irauten dutela uste dute. Adibidez, Galizian Fraga edo armadako goi-kargu batzuk.

Bestetik, mugimendu ultraeskuindarrak handitu egin direla eta horren kausa, krisia izan dela pentsatzen du jendeak, gehienbat gazteek eta adinakoek. Izan ere, orokorrean, krisiarekin jendea eskuindarrago egin dela esaten dute. Mugimendu horien adibideak, "Tea Party"-a eta Europako herrialdeen gobernuetan ultraeskuinaren garrantzia dira.

Konklusio Orokorra

Gure lanaren azken atalera heldu gara. Mugimendu ultraeskuindarrei buruz egin dugun lan honen bitartez, ondorioak atera ditugu eta era labur batean azalduko ditugu.

Munduan krisiarekin, petrolio eta lehengaien eskasiarekin gertatzen ari denaren ondorioz, politikari eskuindarrak gero eta ultraeskuindarrago bihurtzen ari dira. Orain mugimendu arrazistak eta xenofoboak bultzatzen dituzte. Horien adibideak garbi ikus daitezke: Frantziako ijitoen kanporaketak, AEBn Barack Obama presidentearen kontra altxatutako Tea Party mugimendua, Europako hainbat herrialdeetan gertatutako jarrera faxistak, etab.

Gainera, lehen zentrokoak ziren hainbat alderdi politiko orain eskuinerantz egiten ari dira aurkeztutako krisiaren kontrako hainbat neurritan, herrialde garatu batzuetan. Era beran, azken urteetan Elizan katolikoaren barnean gero eta indar handiagoa hartzen ari dira katolizismotik sortutako mugimendu ultraeskuindarrak. Hala nola, Opus Dei eta era horretako hainbat.

Krisiak eragin txikia edo nulua izan duen hainbat herrialdeetan, ordea, (gehienak hirugarren edo bigarren mundukoak) kontrako jarrerak altxatu egiten ari dira, demokraziaren alde eta

berdintasunaren, askatasunaren eta aldaketen alde. Horren adibideak gaur egun ugariak dira:

Ekialde hurbilean eta arabiar munduan, herrialde garatuetan ez bezala, demokraziaren eta aldaketa sakonen alde egiten ari dira mugimendu batzuk, nahiz eta oraindik ez lortu diktadoreen aurka irabaztea. Adibidez, Egiptoren eta Tunezen kasuan lortu egin duten garaitzea; Libian, aldiz, oraindik diktadorea irauten du, baina mundu hobe bat lortzeko garaitzea espero du iritzi publikoak.

Ez dakigu egoera hau nola geratuko den urte batzuren buruan, baina espero dugu munduaren eta pertsona eta hiritarren onerako bidea hartzea. Horrela, geure semeek edo bilobek hasita berri dugun XXI. mendeko hamarkada hau mundu berri eta hobe baten hasiera izango da.

Bibliografia

MIKEL ROTAETXE, oreka komunikazioa
(<http://orekakomunikazioa.deusto.es/2011/03/07/marine-le-pen-ultra-eskuinaren-olatu-berria/>)

MarineLePen, Wikipedia (http://es.wikipedia.org/wiki/Marine_Le_Pen)

Jean-MarieLePen, Wikipedia (http://es.wikipedia.org/wiki/Jean-Marie_Le_Pen)

ANTONIO JIMENEZ BARCA, elpais 2011/03/08 (http://www.elpais.com/articulo/internacional/sondeo/confirmacion/escala-da/Marine/Le/Pen/elpepuint/20110308elpepuint_7/Tes)

ANTONIO JIMENEZ BARCA, elpais 2011/01/06 (http://www.elpais.com/articulo/internacional/Le/Pen/traspasa/liderazgo/ultraderecha/francesa/hija/Marine/elpepiint/20110116elpepiint_14/Tes)

MANUEL: El Tea Party creacionista, La ciencia y sus demonios (Wordpress) 2010ko Urriaren 21

(<http://cnho.wordpress.com/2010/10/21/el-tea-party-creacionista/>)

Tea party movement, Wikipedia.
(http://es.wikipedia.org/wiki/Tea_Party_Movement)

Alza de la extrema derecha en Europa : ¿Existe hoy un peligro fascista?, Corriente Comunista Internacional, 2005ko urriaren 26

(http://es.internationalism.org/rint/2002/110_extrema_derecha.htm)

Ultraeskuina, Wikipedia¿Por qué?
(http://es.wikipedia.org/wiki/Extrema_derecha)

Faxismoa, Wikipedia()¿Por qué?
(<http://es.wikipedia.org/wiki/Fascismo>)

()Faxismoa, Wikipedia ¿Por qué?
(<http://eu.wikipedia.org/wiki/Faxismo>)

[\(\)Ultraeskuina, Wikipedia ¿Por qué?www.rtve.es/noticias/extrema-derecha/](http://www.rtve.es/noticias/extrema-derecha/)
Faxismoa gaur egun,()Wikipedia¿Por
[qué?blogs.periodistadigital.com/cronicasbarbaras.php/2010/10/16/...](http://blogs.periodistadigital.com/cronicasbarbaras.php/2010/10/16/...)
Faxismoaren definizioa, Wikipedia()¿Por
[qué?es.wikipedia.org/wiki/Definiciones de fascismo](http://es.wikipedia.org/wiki/Definiciones_de_fascismo)
()Faxismoa, Wikipedia, ¿Por qué?www.fascismo.com/
Ultraeskuina, Wikipedia,()¿Por qué?derecha.blogdiario.com/
()- Wikipedia, ¿Por
[qué?es.wikipedia.org/wiki/Extrema derecha#Ideolog.C3.ADA](http://es.wikipedia.org/wiki/Extrema_derecha#Ideolog.C3.ADA)
Partido Popularreko orrialde ofiziala, <http://www.pp.es/>
PartidoPopoular, Wikipedia,
http://es.wikipedia.org/wiki/Partido_Popular
Manuel Fragalribarne, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Manuel Fraga](http://es.wikipedia.org/wiki/Manuel_Fraga)
Ministerio del Interior de España, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Ministerio del Interior de Espa%C3%B1a](http://es.wikipedia.org/wiki/Ministerio_del_Interior_de_Espa%C3%B1a)
Licinio de la Fuente, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Licinio de la Fuente](http://es.wikipedia.org/wiki/Licinio_de_la_Fuente)
Baltasar Garzon, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Baltasar Garzo%C3%B3n](http://es.wikipedia.org/wiki/Baltasar_Garzo%C3%B3n)
Luciano Varela, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Luciano Varela](http://es.wikipedia.org/wiki/Luciano_Varela)
ManosLimpias, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Manos Limpias \(Espa%C3%B1a\)](http://es.wikipedia.org/wiki/Manos_Limpias_(Espa%C3%B1a))
Falange Española de las JONS, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Falange Espa%C3%B1ola de las JONS](http://es.wikipedia.org/wiki/Falange_Espa%C3%B1ola_de_las_JONS)
Francisco Franco, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Francisco Franco](http://es.wikipedia.org/wiki/Francisco_Franco)
Tribunal Penal Internacional, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Tribunal Penal Internacional de La Haya](http://es.wikipedia.org/wiki/Tribunal_Penal_Internacional_de_La_Haya)
Estoeshipocresia, El pais.com, 2011ko urtarrilaren 4an,
<http://lacomunidad.elpais.com/la-hipocresia-de-la-iglesia/2011/1/4/el-yunque-espana-familia-ruiz-mateos-fue-principal>
OrganizacionNacional del Yunque, Wikipedia,
[http://es.wikipedia.org/wiki/Organizaci%C3%B3n Nacional del Yunque](http://es.wikipedia.org/wiki/Organizaci%C3%B3n_Nacional_del_Yunque)